

Hitzaren leial, leial herriaren

Anjel Lertxundi

Berrria, 2004-10-05: IX.

Ugalde adjektibo bakar batez definitu beharko banu: leiala. Hortik abiatu, ertz ugari leialtasun baten kronika idatzi beharko nuke, baina ertz guztiek gizatasunaren, Euskal Herriaren, euskararen eta literaturaren lau ardatz nagusien txirikordan hartzen dute koherentzia. Lauren txirikordak soilik eman lezake Martinen isla benetakoa, zaila da haren egitekoan bata bestearengandik bereiztea.

Ni gutxiko idazlea zen Martin. Zegoen tokian zegoelarik, nahiago zuen gu bateko partaide agertu. *Gu* euskaldun, *gu* etorkin edo *gu* idazle: kolektibo bateko partaidetzat jotzen zuen bere burua, *gu* baten kate-begitzat zeukan bere lana. Bere portaera guztia markatzeraino zeukan barneraturik kate-begi bat zela: ez zuen kate-begi baino gehiago izan nahi; baina ezta gutxiago ere. Idazleei eta sortzailei egozten zaien individualismoaren arrastorik gabe, besteen ondoan garatu zuen bere giza autonomia, bere izaera soziala, bere literatura: izaera eta balio-sare berekoen edo bertuko loturan, kontraesanen hausnarrean, hausturen eta arazoaren sufrimenduan, ahulenen aldeko jardunean. Martinek besteekin ikusten zuen bere burua: euskalgintzan zein herrigintzan, laguntza eskatzen zionak zabalik aurkituko zituen beti haren besoak.

Heldutasun literario handi baten jabe itzuli zen Venezuelatik, eta sortzaile ez denek nekez balora dezakeen sakrifizio izugarria egiteko prest: bazekien ezingo zituela baliatu atzean utzitako kalitatezko obra, kritikaren onespena, idazle onaren fama. Hori guztia utzi beharko zuela, baldin gaztelaniaz eraikitako nortasun aparteko poetika –denek txalotzen ziotena– lantzen segitu ordez, euskararen aldeko apustua egiten bazuen. Eta hala egin zuen. Baina erabaki hartan ez zegoen kalkulurik, ez zegoen erretorikarik: Venezuelen Venezuelako izan bazen, nola ez zen euskaldun izango Euskal Herrian? Logika kontua, logika hutsa, logika elementala. Halatan, zeukan guztia eskaintzera itzuli zen Martin Venezuelatik. Ilusio handiz. Baina, itzuli orduko, ia ilusioaren neurri bereko frustrazio baten kontra jardun behar izan zuen: bat esan eta bestea egiten zuen euskaldun ugari aurkitu zuen herrigintzan eta euskalgintzan; euskaldun asko ikusi zuen printzipio eta asmo ezin bestekoena sakrifikatzen posibilitatearen eta unean uneko *premia* politikoen aldarean. Asko mindu zuen horrek, asko saiatu behar izan zuen samina gainditzeko, frustrazio horren kontra egin nahiaren hariak asko lagun dezake Martin Ugalderekin azken hogeitako ibilbide publikoa ulertzen. Zinez uste dut euskal gizartea zorretan dagoela Martin Ugalderekin, eta ez andoaindarrak egin zuen guztiagatik bakarrik: ez dira hain urrutikoak haren jarrera etikoa orbanduta eta kriminalizatuta ikusi genituen garaiak. Hitzaren leial, leial herriaren: zorretan gaude.